

BATXILERGOAREN EBALUABIOA UNIBERTSITATEAN SARTZEKO (BEUS)

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

EZAUGARRI OROKORRAK	1
ZEIN DA PROBAREN EDUKIA?	1
ZEIN AZTERKETA EGINGO DITUZU NAHITAEZKO FASEAN?	1
ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZAREN AZTERKETA EGIN DEZAKET?	1
ZERTAZ EGITEN DUZU AZTERKETA BORONDATEZKO FASEAN? ZERTARAKO DA?	2
ZEIN DA ONARTUA IZATEKO NIRE NOTA UNIBERTSITATEKO GRADU BAKOITZERAKO?	2
ONARPEN NOTA BERA EDUKIKO DUT UNIBERTSITATE GUZTIETARAKO?	2
BATXILERGOAREKIN ETA NAHITAEZKO FASEAREKIN 12 PUNTU LORTZEN AHAL DITUT?	3
NAHITAEZKO FASEKO IRAKASGAIA HAZTA DIEZADATEN, BORONDATEZKO FASERA ERE AURKEZTU BEHAR DUT?	3
NOIZ HARTZEN DA GAINDITUTZAT BEUSA?	3
ZEIN DOKUMENTAZIO ERAMAN BEHAR DUT BEUSERAKO?	3
LANBIDE HEZIKETAKO IKASKETAK EGIN BADITUT, BEUSEN AURKEZTEN AHAL NAIZ?	4
BEUSEKO NOTAK	5
NOLA EMANGO DIKIDATE NOTAK?	5
ZILEGI DA JARRI DIKIDATEN NOTEN AURKAKO ERREKURTSOA AURKEZTEA? ZILEGI DA NIRE NOTA JAISTEA?	5
AZTERKETA ZUZENDUTA IKUSTEKO ESKUBIDEA DAUKAT?	5
NOIZ ARTE BALIO DUTE BEUSEKO NOTEK?	5
KALIFIKAZIOA HOBETZEA	5
BERRIRO AURKEZTEN BANAIZ, PROBA OSOA EGIN BEHARKO DUT BERRIRO?	5
BEUS OHIKO DEIALDIAN GAINDITU DUT, ETA OHIZ KANPOKOAN AURKEZTUKO NAIZ NOTA IGOZTEKO ...	6
BORONDATEZKO FASEA ERREPIKATZEN BADUT, ZILEGI DA EGIN NITUEN IRAKASGAIK EZ DIREN BESTE BATZUK AUKERATZEA?	6
BORONDATEZKO FASEAN INGELESA IRAKASGAIAN AURKEZTEN AHAL NAIZ?	6
BORONDATEZKO FASEA EGITEN BADUT, BAKARRIK, USP EGINDA EDUKITA, USPKO FASE OROKORREKO IRAKASGAIA HAZTATUKO DIDATE?	6
BORONDATEZKO FASERA AURKEZTEN BANAIZ ETA JOAN DEN URTEKO BORONDATEZKO FASEKO IRAKASGAI BAT GAINDITUTA BADAUKAT, ATERA NUEN NOTA GORDEKO DIDATE?	7

BATXILERGOAREN EBALUABIOA UNIBERTSITATEAN SARTZEKO (BEUS)

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

EZAUGARRI OROKORRAK

Zein da probaren edukia?

Batxilergoaren Ebaluazioa Unibertsitatean Sartzeko (BEUS) proba gainditu behar dute LOMCE Batxilergoko ikasleek unibertsitateko ikasketak egiteko. Probak bi zati ditu: nahitaezko fasea eta borondatezko fasea, nota igotzeko. Batxilergoko 2. ikasmilako irakasgaiak dira.

Prestakuntza zikloko ikasleentzat ere zilegi da probara aurkeztea, baina soilik borondatezko fasera.

Zein azterketa egingo dituzu nahitaezko fasean?

Irakasgai hauetatik:

1. Gaztelania eta Literatura II
2. Espainiako Historia
3. Atzerriko Hizkuntza (Frantsesa, Ingelesa edo Alemana)
4. Euskara eta Literatura II (A eta D ereduak)
5. Matematika II, B- Latina II, C- Gizarte Zientzietan Aplikaturiko Matematika II edo D- Artearen Oinarriak (egin duzuna), modalitateko enborreko irakasgai orokorra da.

Nahitaezko fasearen nota azterketako irakasgaien batezbesteko aritmetikoa da. 4 bat ateratzea aski da gainditzeko, baldin eta batxilergoko batez besteko notaren % 60rekin eta BEUSeko nahitaezko faseko kalifikazioaren % 40rekin gutxienez 5 bat lortzen baduzu. Modalitateko enborreko irakasgai orokorra haztagarria da, zein gradutatik sartzen den.

Nahitaezko fasea ez da iraungitzen.

Atzerriko bigarren hizkuntzaren azterketa egin dezaket?

USEra aurkezten zaren lehen aldiz, nahitaezko fasean, atzerriko hizkuntzari dagokionez, lehen edo bigarren hizkuntzaren azterketa egin dezakezu, hauetako hizkuntza bat egin baduzu Batxilergoko 2. ikasmilari: ingelesa, frantsesa edo alemana.

Berriz aurkezten bazara, eta nahitaezko fasea gaindituta badaukazu, egin duzuna ez den atzerriko beste hizkuntza baten azterketa egin zenezake.

Zertaz egiten duzu azterketa borondatezko fasean? Zertarako da?

3 irakasgaitan gehienez ere.

Gainditutako irakasgaien notak bider 0,1 edo 0,2 eginda haztatuko dira, graduaren arabera. Kalifikazioa 4 puntu handiagoa izan liteke, gehienez ere.

1. BEUS delakoa lehen aldiz egiten duten LOMCE Batxilergoko ikasleak badira, aukeratzen ahal dute: aukerako edozein enborreko irakasgai, eta nahitaezko faseko azterketan sartu ez diren modalitateko enborreko orokorrak, baita BEUSEk eskaintzen duen hizkuntza bat ere, nahitaezko fasean eskaini ez dena.
2. LOMCE Batxilergoko ikasleak badira eta berriz aurkezten badira borondatezko fasera, nahitaezko fasea gainditu eta gero: edozein modalitateko aukerako enborreko irakasgaietara aurkezten ahal dira, baita edozein modalitateko enborreko orokorretara ere, baita USEak eskaintzen dituen hizkuntzetako batera ere.
3. Prestakuntza zikloa daukaten ikasleek aukerako enborrekoen azterketa eta modalitateko enborreko orokorren azterketa egiten ahal dute, baita BEUSEk eskaintzen duen hizkuntza batekoa ere.

Fase honek balioa izango du Unibertsitatean sartzeko probetarako, horiek gainditu eta ondorengo bi ikasturteetan.

Zein da onartua izateko nire nota unibertsitateko gradu bakoitzerako?

Kontuan hartzen dira bai Batxilergoko zure nota, bai nahitaezko faseko nota eta bai borondatezko faseko irakasgaietako notak. Formula hau da:

BATXILERGOKO NOTA*0,6 + NAHITAEZKO FASEKO NOTA*0,4 + a*M1 + b*M2

- M1 eta M2 dira, haztapena aplikatu ondoren, unibertsitatean onartua izateko nota onena ematen duten bi ariketen kalifikazioak. Irakasgai haztagarriak dira modalitateko enborreko irakasgai orokorrak (nahitaezko eta borondatezko fasekoak) eta borondatezko faseko aukerako enborrekoak

- a eta b haztatze-parametroak dira, eta 0,1 edo 0,2 balioa edukiko dute.

Gehienez ere, 14 puntu lortuko dituzu formula hori aplikatuz. Ikusten duzunez, Batxilergoko notak % 60ko balioa du, eta nahitaezko fasekoak, % 40koa.

BEUS berriarekin, haztatzen duten irakasgaietako bat izan daiteke nahitaezko fasean azterketa egin duzun irakasgaia (zure batxilergoko modalitateko enborreko orokorra) eta borondatezko fasean gainditutako atzerriko hizkuntza. Beraz, borondatezko fasera aurkeztu gabe, 12 puntu lortuko dituzu gehienez ere, Nafarroako Unibertsitate Publikora sartzeko.

Onarpen nota bera edukiko dut unibertsitate guztietarako?

Ez, baliteke nota bera ez izatea. Unibertsitate bakoitzak ezartzen ditu haztatze-parametroen balioak. Beraz, baliteke nota desberdina izatea unibertsitate bakoitzak.

Batxilergoarekin eta nahitaezko fasearekin 12 puntu lortzen ahal ditut?

Nahitaezko fasearekin eta batxilergoko batezbestekoarekin 12 puntu arte lortzen ahal dituzu, fase honetako modalitateko enborreko irakasgai orokorra haztagarria izaten ahal delako, zer gradutara sartu nahi den, eta betiere irakasgai horretan 5 edo handiagoa den nota lortzen bada eta nahitaezko fasea gainditu bada.

Nahitaezko faseko irakasgaia hazta diezadaten, borondatezko fasera ere aurkeztu behar dut?

Ez, ez da beharrezkoa.

Noiz hartzen da gainditutzat BEUSa?

5ekoa edo nota handiagoa lortzen denean Batxilergoko batez besteko notaren % 60aren eta nahitaezko faseko kalifikazioaren % 40aren batezbesteko haztatuaren emaitza gisa.

$$\text{Batxilergoko nota} \times 0,6 + \text{nahitaezko faseko nota} \times 0,4$$

Unibertsitaterako sarbidea izango du ikasleak formula horren emaitza 5ekoa edo nota handiagoa denean, betiere 4ko gutxieneko nota atera baldin badu nahitaezko fasean.

Zein dokumentazio eraman behar dut BEUSerako?

NANa, ordainketaren frogagiria edo abonu-agiriaren kopia ikastetxeakeg zigilatua, ordainketatik salbuetsita bazaude, eta bolaluma beltz edo urdin bat.

Tippexa erabil daiteke. Ezin da erabili boligrafo ezabagarriak.

Ikasleek **ezin izango dute sartu** azterketa egingo den ikasgelan komunikatzeko edo datuak gordetzeko gailu elektronikorik, besteak beste, telefono mugikorrek, ordenagailu pertsonalak edo **ordulari adimendunak**. Azterketa hasitakoan ikasleren batek halako gailu bat daukala hautematen bada (piztuta zein itzalita), haren erantzukizuna izango da, eta azterketa horretan 0 kalifikazioa jasoko du.

Horrez gainera, zilegi da material gehigarria eramatea gai hauetan:

IRAKASGAIAK	MATERIAL GEHIGARRIA
Marrazketa Teknikoa II	Marrazketarako ohiko tresna espezifikoek gain, eskuaira, kartaboia, erregela eta konpasa, eskalimetroa, gorputz geometrikoen ereduak eta kalkulagailua. Arkatzak, gogortasun desberdinekoak
Diseinua	Diseinua garatzeko beharrezkoa den materiala. Probaren amaiera azkarragoa egiteko, koloretako kartulinak eta kontsultarako eredu tipografikoak erabiltzen ahalko dira. Aldiz, ezin da erabili argazkirik, edo egindako diseinuari gaineratzen ahal zaion tipografiarik.
Enpresaren Ekonomia	Erregelak. Kalkulagailuak erabiltzen ahalko dira, programagarriak ez badira, pantaila grafikorik ez badute eta ekuazioak ebazteko aukera ematen ez badute. Ez dute ahalmenik izango datu alfanumerikorik metatzeko, ezta ere.
Fisika	Kalkulagailuak erabiltzen ahalko dira, programagarriak ez badira, pantaila grafikorik ez badute, eta ekuazioak edo matrizeekin egindako eragiketak ebazteko eta determinanteen, deribatuen edo integralen kalkulua egiteko balio ez badute. Ez dute ahalmenik izango datu alfanumerikorik metatzeko, ezta ere.
Geografia	Kalkulagailua erabiltzen ahal da, programagarria ez bada.
Griego	Greziara-espainiera hiztegia (erreferentziatzen VOX hiztegiaren edozein edizio hartzen da). Hiztegia erabiltzeko, orriak markatzekoak eta post-it direlakoak erabiltzen ahal dira, oharrak ez badute. Hiztegiak berekin dakarren gramatikari buruzko kaiertxoak ere kontsultatzen ahal da. Hiztegiaren bertan egoten ahalko dira esanahi azpimarratuak edo nabarmenduak, baita hiztegiari buruzko oharrak ere. Ez da onartuko literaturari, etimologiei edo proban ebaluatzen den beste edozein gauzari buruzko idatziak dituen hiztegiarik; are, iruzurra egiteko asmoa delako frogatzat hartuko da, eta epaimahaiak erabakiko du horrek zer ondorio dakarren.
Latina II	Latineko hiztegia eta bere gramatika-eranskina.
Matematika II	Ezin daiteke kalkulagailurik edo beste edozein gailu elektronikoa edo informatikorik erabili.
Gizarte Zientzietako Matematika II	Kalkulagailuak erabiltzen ahalko dira, programagarriak ez badira, pantaila grafikorik ez badute, eta ekuazioak edo matrizeekin egindako eragiketak ebazteko eta determinanteen, deribatuen edo integralen kalkulua egiteko balio ez badute. Ez dute ahalmenik izango datu alfanumerikorik metatzeko, ezta ere.
Kimika	Kalkulagailuak erabiltzen ahalko dira, programagarriak ez badira, pantaila grafikorik ez badute, eta ekuazioak edo matrizeekin egindako eragiketak ebazteko eta determinanteen, deribatuen edo integralen kalkulua egiteko balio ez badute. Ez dute ahalmenik izango datu alfanumerikorik metatzeko, ezta ere.

Lanbide Heziketako ikasketak egin badituz, BEUSn aurkezten ahal naiz?

Bai, horrek ematen dizulako bidea unibertsitatean sartzeko nota lau punturaino hobetzeko, gehienez. Taulan agertzen diren 17 irakasgai horietatik 3 aukeratu, gehienez, eta horien azterketa egiten ahalko duzu: modalitateko enborrekoak eta aukerako enborrekoak, baita borondatezko fasean eskaintzen den hizkuntzen arteko bat ere.

Unibertsitatean onartua izateko nota formula honekin kalkulatu da, hiru hamarrenekin adieraziko da, eta milaren hurbilenarekin biribilduko da:

$$\text{PRESTAKUNTZA-ZIKLOKO BATEZ BESTEKO NOTA} + a \cdot M1 + b \cdot M2$$

- M1 eta M2 dira unibertsitatean onartua izateko nota onena ematen duten bi ariketen kalifikazioak.

- a eta b haztatze-parametroak dira, eta 0,1eko edo 0,2ko balioa izango dute.

Lanbide Heziketako zure ikastetxean matrikula egin behar duzu.

BEUSeko NOTAK

Nola emango dizkirate notak?

Notak [web orrialdean](#) kontsultatzeko, bai eta BEUSeko txartel elektronikoa deskargatzeari eta erreklamazioak egiteari dagozkien prozedurak kontsultatzeko ere.

Zilegi da jarri dizkidaten noten aurkako errekurtsioa aurkeztea? Zilegi da niri nota jaistea?

Bai. Prozesu horren ondoriozko kalifikazioa hasierako kalifikazio bera, altuagoa edo baxuagoa izan daiteke. Kontsulta ezazu [web-orrian](#)

Azterketa zuzenduta ikusteko eskubidea daukat?

Bai. Kontsulta ezazu [web-orrian](#)

Noiz arte balio dute BEUSeko notek?

Nahitaezko fasea gainditu izanak iraupen mugagabea du. Aldiz, borondatezko faseko kalifikazioek balio izango dute unibertsitatean sartzeko gainditu eta ondorengo bi ikasturteetan, , nahitaezko fasea, lehenagoko hezkuntza-sistemetako proba baliokideren bat, edo goi mailako gradu bat gainditu badira.

KALIFIKAZIOA HOBETZEA

Berriro aurkezten banaiz, proba osoa egin beharko dut berriro?

Ondoz ondoko deialdietara aurkezteko aukera izango duzu kalifikazioa hobetzeko: nahitaezko fase osora (eta Batxilergoko beste modalitate bat eta atzerriko beste hizkuntza bat hautatzeko aukera izango duzu), borondatezko fasera edo bietara.

Borondatezko fasera bakarrik aurkezten bazara, hiru irakasgairen azterketa egin dezakezu, irakasgaia eginda izan edo ez: (edozein batxilergotako) modalitateko edozein enborreko irakasgai orokor, (edozein batxilergotako) enborreko aukerako edozein irakasgai, eta borondatezko fasean eskaintzen den hizkuntzetako bat.

Deialdi berrian ateratako kalifikazioa aurrekoan ateratakoa baino handiagoa bada soilik hartuko da.

BEUS ohiko deialdian gainditu dut, eta ohiz kanpokoan aurkeztuko naiz nota igotzeko.

Uztailean ateratzen duzun nota kontuan hartuko zaizu hurrengo ikasturteko sarbiderako soilik. Hau da, lehenetsuna dute hautaprobak ohiko deialdian gainditu dituztenek, nota txikiagoa badute ere.

Borondatezko fasea errepikatzen badut, zilegi da egin nituen irakasgaiak ez diren beste batzuk aukeratzea?

Zilegi da beste irakasgai batzuk aukeratzea, aurreko deialdietan egin dituzun irakasgaien azterketak alde batera utzita.

Zilegi da nahitaezko fasean berriro egitea nahitaezko fasean azterketa egiteko aukeratu nuen modalitateko enborreko irakasgai orokorra?

Nahitaezko fasekoa ez den deialdi bateko borondatezko fasera aurkeztu behar baduzu, zilegi da halaber nahitaezko fasean azterketa egiteko aukeratu zenuen modalitateko enborreko irakasgai orokorrera aurkeztea. Bi deialdi direlako da zilegi. Esaterako, BEUS ohiko deialdian gainditua baduzu eta ohiz kanpokoan berriro aurkezten bazara, edo beste urte batean aurkezten bazara.

Gauza bera gertatzen da, USPko fase orokorrean irakasgairen bat gainditua baldin baduzu eta orain borondatezko fasean errepikatu nahi baduzu. Bi deialdi direlako da zilegi.

Borondatezko fasean Ingelesa irakasgaien aurkezten ahal naiz?

Bai, 2018-2019 ikasturteaz geroztik aukera dago nahitaezko fasean aukeratu ez duzun hizkuntza baten azterketa egiteko deialdi berean, hau da, hizkuntza hauetako batena: Ingelesa, Frantsesa edo Alemana. Borondatezko fasera baizik aurkezten ez bazara, nahitaezko fasean egin zenuen hizkuntza bera aukeratzen ahal duzu.

Borondatezko fasea egiten badut, bakarrik, USP eginda edukita, BEUSeko nahitaezko faseko irakasgaia haztatuko didate?

EZ, inola ere ez. USP gainditu duten ikasleak fase orokorreko kalifikazioarekin sartuko dira, USPren fase espezifikoa iraungi delako.

Borondatezko fasera aurkezten banaiz eta joan den urteko borondatezko faseko irakasgai bat gaindituta badaukat, atera nuen nota gordeko didate?

Aurreko ikasturteko borondatezko faseko irakasgairen bat gaindituta badaukazu, nota horrek balio du. Haztaten ahalko lirateke bai joan den urteko nota, baita aurten borondatezko fasean gainditzen dituzun irakasgaien notak ere.